

GIG 31

SANTIAGOKO DUNAK ETA PADURA

BALIO INTRINTSEKOA: **2,25**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,38**KALTEBERATASUN-MAILA: **3**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Urola ibaiaren bokaleko konplexu sedimentarioa oso aldarazita dago, giza jarduna dela tarteko. Santiago hondartzaren mendebaldean egindako dikeek, batetik, eta hegoaldean kirol-portu bat eraiki eta jarri izanak, bestetik, aldarazi egin dituzte bai olatuak lehertzeko modua bai marea-lasterren bana-keta. Horren guztiaren ondorioz, eremu honetako egitura sedimentarioak beren berezko dinamikatik oso urrun daude.

Hala eta guztiz ere, elementu interesgarriak daude oraindik ere inguruan, hala nola Santiago hondartzako marearteko eremua, era askotako ohe-formak ageri baitira, eta eremu supramarealeko duna-sistemak. Horrelako ingurune sedimentarioak gutxi dira euskal kostaldean, eta beraz, oso balioetsiak dira testuinguru honetan. Haizeak egiten duen garraio-lanaren ondorioz sortzen dira dunak; izan ere, haizeak 4 m/s-ko abiadura gaintitzen duenean, gai izaten da hondartzan agerian dauden marearteko eremuetatik eremu supramarealera hondarra garraiatzeko. Han, gero, sedimentua harrapatuta geratzen da dunako landaretzan. Santiagokoan, zehazki esatera, dunako 50 landare-espezie ere badaude. Duna-zelai hau ere oso aldarazita dago, inguruan eraikinak daudelako, batetik, eta bestetik, bidexka arautu gabeak izugarri ugartzen ari direlako.

Hondartzaren hegoaldean padura-gune txiki batzuk daude, eta interes handi samarrekoak izanik ere, hain daude dikez, bidexkaz eta bestelako egiturez inguratuta, zaila izango baita epe laburrean irautea.

NOLA BERTARATU

Santiago hondartzatik gertu, badago bertarako egokitutako aparkaleku bat.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ. Talaimenditik ere ederki eta zabal ikusten da Urolaren estuario osoa.



Santiago hondartzako dunan ageri den xafladura bat, gertutik ikusita.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 560965 m / Y= 4794381 m / Alt.= 4 m



Santiagoko padura, Talaimenditik ikusita. Kirol-portuak nabarmen aldarazi du paduraren berezko dinamika.